



# AZPÉITIA

XXXII EUSKAL  
ANTZERKITOPAKETAK

2014<sup>ko</sup> UDAZKENA

# EGITARRAUA

Urriak 31 eta azaroaren 1etik 23ra



# KARTEL IRAGARLEA

Cristóbal Aguiló

**Urriak 31, ostirala**  
**XXXII. ANTZERKI**  
**TOPAKETEN**  
**IREKIERA**  
HELDUENTZAT

## ESTRENALDIA

**“NON GAUDE?”** Lakrikun  
21:30ean,  
Soreasu Antzokian

**9, igandea**  
HAUR + HELDUENTZAT  
**“MOLLIE MALONEN**  
**IPUIN**  
**SINESTEZINA”** Txalo  
18:00etan,  
Soreasu Antzokian

**Azaroak 10, 11**  
**eta 12 ESKOLA**  
**EDO GAZTETXOEI**  
**ZUZENDURIKO**  
**ANTZERKIA**  
11:00etan eta 15:30ean,  
Soreasu Antzokian

**14, ostirala**  
HELDUENTZAT  
**“OREKAREN DESOREKA”**  
Azpeitiko Emakumeen  
Tailerra  
21:30ean,  
Soreasu Antzokian

**15, larunbata**  
HELDUENTZAT  
**“ARRASTOAK”**  
Dejabu panpin  
laborategia  
21:30ean,  
Soreasu Antzokian

**16, igandea**  
HAUR + HELDUENTZAT  
**“ERPURUTXO”** Teatro  
Paraiso  
18:00etan,  
Soreasu Antzokian

**Azaroak 20, 21**  
**eta 22 ZIKLO**  
**BEREZIA**  
**ANTZERKI**  
**ALTERNATIBOA**  
• **“KONPOTA”**  
Eneritz Artetxe  
• **“ZERTARAKO**  
**HEGOAK?”**  
Metrokoadroka Taldea  
• **“ESPAZIO HUTSAK”**  
Higa Antzerkia  
21:30ean, Gaztetxean eta  
kafetxo batekin.

**23, igandea**  
HAUR + HELDUENTZAT  
AMAIAERAKO-ANTZERKIA  
**“BARBANTXO” 3D**  
Logela Multimedia  
18:00etan,  
Soreasu Antzokian

## zatoz eta gozatu antzerkiaz!


## ESTRENALDIA

**“EULI-GIRO”** Kamikaz  
Kolektiboa  
21:30ean,  
Soreasu Antzokian

**AZAROA**  
**1, larunbata**  
HELDUENTZAT  
**“PANKREAS”** Tartean  
Teatroa  
21:30ean,  
Soreasu Antzokian

**2, igandea**  
**II. ANTZERKI ESKOLEN**  
**EGUNA**  
Goizean zehar, Plaza  
Nagusian  
HAUR + HELDUENTZAT  
**“EGUN BERRI BAT”**  
Eidabe Kultur Elkarte  
18:00etan,  
Soreasu Antzokian

**7, ostirala**  
HELDUENTZAT  
**“ARKIMIDISEN**  
**PRINTZIPIOA”**  
Maskarada  
21:30ean,  
Soreasu Antzokian



Cristóbal Aguiló, Alcántarilla (Murcia), komunikazio arloan 20 urteko esperientzia du eta sormen lanak, diseinu grafiko lanak eta arte eta ilustrazio zuzendari lanak egin ditu era guztietako proiektuetarako eta kanpainetarako: telebista iragarkiak, prentsa iragarkiak...

Hainbat publizitate agentzietan egin du lan eta bere estudio propioa ere badu. Ondorioz, diziplina anitzeko profesionala bilakatu da, bere lanek erakusten duten moduan. [www.cristobalaguilo.es](http://www.cristobalaguilo.es)

Kartel lehiaketetan parte hartzen du eta hainbat sari irabazi ditu bere ibilbide profesionalean zehar.

# agurra

Euskara eta kultura, eskutik. Beste urte batez, 32 urte jada, Azpeitiko Udalak euskara eta kulturaren aldeko apustuarekin jarraitzen du eta Euskal Antzerki Topaketak indarberrituta iritsiko dira. Urriaren 31tik azaroak 23ra bitartean, adin, gustu eta nahi desberdinetara egokitutako antzerkiak ikusteko aukera izango dugu, egitarau zabal eta oparoa egiteko esfortzua egin baitugu.

Bi estreinaldi izango ditugu aurten; batetik, Kamikaz Kolektiboaren "Euli-giro" obrarekin emango diogu hasiera Topaketari eta azaroaren 8an, berriz, Lakrikun azpeitiarrek "Non gaude?" lana aurkeztuko dute. Antzerki honekin, "Grebak gaude" lanarekin hasitako trilogiari amaiera emango diote.

Antzerki alternatiboak bere leku finkoa egin du Topaketen baitan. Honela, azaroaren 20a eta 22aren bitartean Gaztetxeak ateak irekiko dizkio antzerkiari eta hiru saio berezi ikusi dira. Bestalde, Azpeitiko antzerkirako

ahal izango zaletasuna sustatzen jarraituz, haur eta gaztetxoentzat ere igande arratsaldeetan hamaika istorioz gozatzeko parada izango dute.

Ez nituzke lerro hauek amaitu nahi, Pilar Aizpitarte zenari aipamen berezia egin gabe. Azpeitiko antzerkigintzan hutsune handia utzi du, baina are eta zaletasun eta poztasun handiagoa sortu zuen taula gainean erakutsi zuen talentuarekin. Eskerrik asko Pilar!

**Jarrai dezagun euskal antzerkiak gozatzeko!**

IMANOL AMENABAR  
Kultura Batzordeburua



Helduen antzerki emanaldia  
**EULI GIRO**  
KAMIKAZ KOLEKTIBOA  
Urriak 31, ostirala 21:30ean, Soreasu Antzokian

**ESTREINALDIA**



## SINOPSISIA

Hegalak atera eta ilez estali zitzaizkigun barruak. Begiak erori eta barneko kiratsak erakarri gintuen. Koloretako bi esfera atera zitzaizkigun betileen artean. Euliak sabelean genituela jaino eta poliki-poliki euli bilakatu ginen. Itzulerako bideari ekin diogu orain, ile artean zilborraren bila. Arrakaletan galdutako begien bila. Elkarrekin.

## FITXA ARTISTIKOA

- **Idea:** Kolektiboa
- **Zuzendaritza:** Kolektiboa
- **Kanpotik laguntzen:** Dorleta Urretabizkaia
- **Aktoreak:** Ainhoa Casina, Miren Gaztañaga, Erika Olaizola
- **Testua:** Uxue Alberdi, Silvia Plath, Maribel Esteban, Julio Cortazar eta aktore taldea.

## FITXA TEKNIKOA

- **Argi diseinua:** Edi Naudó
- **Musika diseinua:** Eñaut Gaztañaga
- **Eszenografia:** Edi Naudó
- **Espazio eszenikoa:** Edi Naudó
- **Argazkia / Kartela:** Adro H
- **Web-orria:** Marcos Pérez

Helduen antzerki emanaldia  
**PANKREAS**  
TARTEAN TEATROA  
Azaroak 1, larunbata 21:30ean, Soreasu Antzokian



## SINOPSISIA

Hiru lagun. Lehenak pankreas transplante baten premia larria dauka. Bigarrenak suizidatzeko asmoa dauka hemendik urte batera, heredentziazko Alzheimerri izkin egiteko. Hirugarrenak proposamen bat egingo dio bigarrenari: suizidioaren epea aurreratzea, lehenengoari bere pankreasa emateko.

## FITXA ARTISTIKOA

- **Egilea:** Patxo Telleria
- **Aktoreak:**  
Joseba Apaolaza,  
Mikel Martinez,  
Patxo Telleria
- **Zuzendaria:** Jokin Oregi

## FITXA TEKNIKOA

- **Zuzendari laguntzailea:** Getari Etxegarai
- **Musika:** Santiago Ramos
- **Jantziak:** Azegiñe Urgoitia
- **Eskenografiaren diseinua:**  
Eider Ibarondo eta Isabel Acosta
- **Eskenografiaren eraikuntza:** Eskenitek
- **Ekoizlea:** Tartean Teatroa
- **Ekoizpen arduraduna:** Ane Pikaza
- **Banaketa:** Maria Goiricela



**Azaroak 2, igandea**  
**Plaza Nagusian, goizean zehar**

Helburua antzerki eskoletan lantzen dena plazaratzea eta antzerki eskoletako ikasleak elkar ezagutzea da.

Goizean zehar ahotsa eta gorputza lantzeko eskola bat emango da, Azpeitiko Plaza Nagusian aire librean, eguraldiak laguntzen bagaitu eta bestela San Agustin barruan.

Adin zein herri guztietako antzerki eskolak daude gonbidatuak parte hartzera, baita ere lehen aldiz probatzeko gogoz daudenak ere.

Eskola amaitutakoan, San Agustinen hamaiketakoia izango da parte hartzaile guztientzat.



Haur+Helduentzat antzerki emanaldia  
**EGUN BERRI BAT**  
 EIDABE KULTUR ELKARTEA  
 Azaroak 2, igandea 18:00etan, Soreasu Antzokian



## SINOPSISIA

Eli neskato alai, ameslaria eta ausarta da. Neba galdu eta gero etxetik ihes egingo du bidaia fantastiko baten barrenera. Itsasoan, magiaren unibertsoan, hodeien eta izarren artean bizi-poza berreskuratuko du. Irudi poetiko eta magikoen bitartez galera baten ondorioak ezagutuko dira obran zehar.

“Heriotza tristea izango da heriotzaz pentsatu ez dutenentzat soilik”  
 (Fenelon)

## FITXA ARTISTIKOA

- **Gidoia eta zuzendaritza:** Galder Perez
- **Aktoreak Eszenan:**  
Olatz Ganboa eta Iñaki Maruri
- **Aktorea bidean:** Koldo Olabari
- **Diseinua:** BLK komunikazioa
- **Ilustrazioak:** A. Magaldi
- **Interfaze, animazioen diseinua, mapping eta programazio generatiboa:** Social sound
- **Bideoen grabaketa eta postprodukzioa:**  
Fabian eta Galder
- **Soinua diseinua eta ekoizpena:** Fabian Morales
- **Argazkiak:** Ilara
- **Argiztapena:** John Luhman
- **Asistentzia teknikoa eszenan:** Fabian Morales
- **Atrezzoak:** Alfonso Romero
- **Jantziak:** A mi arte
- **Ekoizpena:** EIDABE

Helduen antzerki emanaldia  
**ARKIMIDESEN PRINTZPIOA**  
 MASKARADA ANTZERKI TALDEA  
 Azaroak 7, larunbata 21:30ean, Soreasu Antzokian



## SINOPSISIA

Arkimedesen Printzipioa ez da pedofiliaren gaineko obra; askoz jota, antzerki-aitzakia da beste leku batera jotzeko, askoz ere gorago dagoen batera. Josep Maria Miró-k udal-igerileku baten kloro-giroan-gehiegizko asepsia duen gure gizartearen parabola perfektuko istorio bat eraikitzen du, non ez dakigun abiapuntuko gertakaria egia den ala ez: neskato batek gurasoei esaten die entrenatzailea beste haur bati ahoan musua ematen ikusi duela. Masailean emandako musu lainoa baino ez da, entrenatzaileak behin eta berriz esaten duen moduan, ala asmo morbosoa zegoen? Gertakariak guztiz kontrakoak diren bi modutan azaltzen dira eta horrela mantenduko dira, aldatu gabe, obra osoan zehar, eta beraz, ikuslea da buruhaustea konpondu beharko duena.

## FITXA TEKNIKOA

- **Egilea:**  
Josep Maria Miró i Coromina
- **Itzulpena:** Iñaki Ziarrusta
- **Antzezleak:**  
Eneko Sagardoy  
Loinaz Jauregi  
Xabier Ortuzar  
Aitor Fernandino

- **Zuzendaria:** Carlos Panera
- **Ekoizpena:** MASKARADA

Helduen antzerki emanaldia

# NON GAUDE?

LAKRIKUN ANTZERKI TALDEA

Azaroak 8, larunbata 21:30ean, Soreasu Antzokian

## ESTRENALDIA



### FITXA ARTISTIKOA

- **Antzezleak:**  
Gurutze Eizmendi  
Idoia Uranga  
Alaitz Olaizola
- **Ahotsa:** Felipe Murillo
- **Teknikoak:**  
Kepa Urbieta  
Igor Aranbarri
- **Argazkia:** Urke argazkiak
- **Diseinua:** Guido Lopez de Vicuña
- **Eskerrak:**  
Juan de Antxieta musika eskola  
Unai Frantsezena

### SINOPSISIA

A.J.E trilogiaren hirugarren zatia duzue honakoa. Aurrekoak GREBAN GAUDE eta PREST GAUDE! izan ziren. Oraingoan, non gauden ere ez dakigu!

Gauden tokian gaudela ere, oraindik ez gaude nekatuta. Zeruak eta lurrak bat eginda ere, gerra ematen jarraitzeko asmorik ez zaigu falta. Ez gaude konforme! Greban egon ginenean argi utzi genuen hori. Gero, prest egon ginen iraultzarako, eta orain, inkonformista eta iraultzaile gatoz!

Gurekin etorri nahi?

Haur+Helduentzat antzerki emanaldia

# MOLLIE MALONEN IPUIN SINESTEZINA

TXALO

Azaroak 9, ostirala 18:00etan, Soreasu Antzokian



### SINOPSISIA

Mollie Malonen aitonak bere baratza zoratatu dela dio; tomateak behar baino lehenago gorritu direla, izozte batek letxugak alferrik galdu dizkiola, babarrunak ez direla loratzen.... Beraz, bere biloba Mollie liburutegi batera bidali du zer gertatzen ari den jakitera, baina liburutegi hau ez da edozein liburutegi..., oso liburutegi berezia da!!!

Liburua aurkitu duenean, erdi ezkutuan dagoen ate bat ireki eta mundu berri bat azaldu zaio

Hortik barrena, mundu arraro horretatik egingo duen bidaian, txori mokoluzeko hizlari bat ezagutuko du eta beste zenbait pertsonaia arraro, denak laster etorriko den gertaera arriskutsu baten ikaran. Nondik atera ote dira? Zer ote arrisku beldurgarri hori?... Gehiago jakin nahi baduzu, zatoz Mollie Malonen abentura sinestezinean bidaiatzera.

### FITXA ARTISTIKOA

- **Egilea :** Eduard Costa
- **Itzulpena:** Martin Agirre
- **Aktoreak :**  
Iraitz Lizarraga  
Alfonso Diez  
Aitor Ferrandino
- **Musika:** Jesus Serrano
- **Off ahotsa:** Martin Agirre
- **Eszenografia :** Assad Kassab
- **Eszenografi egilea:** Deblanc
- **Jantzien diseinua:** Pascual Peris
- **Jostuna:** Cristina Martinez
- **Argiztapena :** Victor Anton
- **Teknikoak:** Alfredo Medina Lirio  
Julen Zaballa
- **Argazkiak :** Joxean Jaramago
- **Kartela:** Joxean Jaramago
- **Aholkularitza juridikoa:** Hator
- **Asegurogintza:** Fremap
- **ekoizpen exekutiboa:** Martin Agirre
- **ekoizpen arduraduna:** Xabier Agirre
- **ekoizpena:** Txalo
- **Banaketa:** ZTP Banaketak
- **Zuzendaria:** Begoña Bilbao Lejarzegi

Haur+Helduentzat antzerki emanaldia

# OREKAREN DESOREKA

EMAKUMEEN ANTZERKI TAILERRA

Azaroak 14, ostirala 21:30ean, Soreasu Antzokian

## Orekaren Desoreka

Emakumeen Antzerki Tailerra



### SINOPSISIA

Ikusezina al da argia?  
Zergatik da azaltzen zaila mamia?  
Zein da gezurra?  
Zer da egia?

Noiz dator bihar? Zenbat da dena?  
Zer da benetan irudimena?  
Zein da okerra?  
Zer da zuzena?

Erantzun oro baneki  
Zeri bihotza ireki  
Egunero zertan jaiki

Badakigu betiko inoiz ez dela  
Bitartean zalantzak ziur direla  
Hobe horrela *Mikel Urdangarin*

Erabaki egin behar, eta erraza ez. Bata edo bestea izan hartutako erabakia, desberdina izango da etorkizuna. Erabakiak hartzera goazen honetan, jar zaitezte gure lekuan. Edo hobeto: zatozte gurekin "Destiny" ra, desorekaren orekaren bila.

### FITXA ARTISTIKOA

- **Gidoia. Zirikatzailea:** Alaitz Olaizola
- **Antzezleak:**  
Ane Arenas  
M. Karmen Borda  
Haizea Egiguren  
Olatz Egiguren  
Amaia Garmendia  
Aizpea Ibarbia  
Erika Olaizola  
Silvia de Pablo  
Mirari Zubizarreta
- **Koreografiaren arduraduna:**  
Mirari Zubizarreta
- **Eszenografia:**  
Ane Arenas  
Jon Agirre  
Emakumeen antzerki tailerra
- **Kartela:**  
Ane Arenas  
Jon Agirre
- **Laguntzaileak:**  
Emakumeen antzerki tailerreko kide ohiak  
Lakrikun antzerki taldea
- **Laguntza eta antolakuntza:** Emakumeen mahaia eta Parekidetasun saila

# ARRASTOAK

DEJABU PANPIN LABORATEGIA

Azaroak 15, larunbata 21:30ean, Soreasu Antzokian



### SINOPSISIA

Lurrek ez du sekula bere amari buruz galderarik egin. Arrastorik utzi gabe egin zuen alde etxetik bera txikia zenean. Orduetik bakarrik egin behar izan dio bizitzari aurre, etxean harrapatuta bizi den aitarekin, erantzunak bilatzeko astirik gabe.

Orain amaren gorpua hilda agertu da ordea, eta galderak hasi dira berriz bor-borrear.

Memoriaren zulo ezkutuenetan uste zituen sentimendu eta munstroiei egin beharko die aurre Lurrek, nahi eta nahi ez.

### FITXA ARTISTIKOA

- **Zuzendaritza eta gidoia:**  
Dejabu panpin laborategia
- **Antzezleak:**  
Miren Alkala  
Urko Redondo  
Iñigo Aranbarri  
Ainara Gurrutxaga
- **Musika konposaketa:**  
Ander Fernandez
- **Musikaria:** Jon Larraz
- **Testuak:**  
Antzezle taldea eta Oier Guillan
- **Argazkiak:** Ainhoa Resano
- **Eszenografia/atreztoa:**  
Dejabu panpin laborategia

Haur+Helduentzat antzerki emanaldia

# ERPURUTXO

TEATRO PARAISO

Azaroak 16, igandea 18:00etan, Soreasu Antzokian



## SINOPSISIA

Klasikoak klasiko dira edozein arotan garaikide izateko ahalmena dutelako.

Erpurutxo ipuinean, ume txiki eta burutsu batek anai-arreba eta senide guztiak salbatzen ditu, nahiz eta gurasoek, baliabiderik ez zutelako etsita, basoan utzi izan.

Askotariko gaiak jorratzen ditu Perrault-ek ipuinean, eta, zalantzarik gabe, horietako bat abandonua da.

Guk jatorrizko istorio hori aurkezten dizuegu, baina abandonuari garrantzi berezia ematen diogu eta, testuinguru gisa, egungo gizartearekiko paralelismoak agerian uzten dituen egoera jartzen dugu.

Perrault-en Erpurutxo ikusi nahi duenak hori ikusiko du, ipuinaren beste ikuspegi erakargarri bat ikusi nahi duenak, ordea, hori ere aurkituko du.

## FITXA ARTISTIKOA

- **Aktoreak:**  
Aitor Fernadino  
Peio Arnaez
- **Eszenografia eta jantziaren diseinua:**  
Ikene Giménez
- **Argizatzearen diseinua:**  
Esteban Salaza
- **Musikaren konposizioa:**  
Iñaki Salbador
- **Itzulpena euskarara:** Patxo Telleria
- **Zuzendaria eta dramaturgia:**  
Iñaki Rikarte
- **Argia eta soinua biran:**  
Kandela iluminación
- **Argazkiak :** Aitor Audicana
- **Eszenografiaren sorrera:** Eskenitek
- **Eszenografiaren girotzea:**  
Eskenitek eta Teatro Paraiso
- **Jantzia sorrera:** Taller de Begoña
- **Jantzia girotzea:** María Calderón
- **Produkzioa:** Teatro paraiso

Haur+Helduentzat antzerki emanaldia

# BARBANTXO

LOGELA MULTIMEDIA

Azaroak 23, ostirala 18:00etan, Soreasu Antzokian



## SINOPSISIA

Barandiaranek, pertsonaien tamaina txikia amankomunean duten ipuin klasikoek euskal aldaerak jaso zituen. Logela Multimedia konpainiak ipuin horien pasarte batzuk aukeratu eta gaurkotu ditu, obra berritzailea, dibertigarria eta partehartzailea eskainiz.

Barbantxok betaurrekoak jantzen dituen momentuan publikoak ere jantziko ditu. Interakzio honek mundu harrigarri bat iragartzen du. Interakzio hau da 3D-ko irudi garaikideen eta ilustrazio tradizionalaren arteko zubia.

Antzezlan multimedia da, bertan antzerkia, zuzeneko musika, "mapping"-a eta 3D efektuak tartekatzen dira.

## FITXA TEKNIKOA

- **Konpainia:** Logela Multimedia
- **Nori zuzendua:** 3 eta 8 urte bitartekoei eta beraien gurasoei.
- **Aktoreak:**  
Amaia Lizarazu  
Leire Olanar  
Ander Garaizabal
- **Ilustrazioak:** Josu Castañares
- **Musika eta soinua:** Logela Multimedia
- **Testuak:** Sonia Villamor
- **Jantziak:** Ainara Barrainkua
- **Argizatpena:** Jon Zubia
- **Irudi digitala eta animazioa:**  
Imanol Garaizabal
- **Zuzendaritza:** Logela Multimedia  
[www.logela.org/barbantxo/](http://www.logela.org/barbantxo/)



# ANTZERKI ALTERNATIBO ZIKLOA

21:30ean, Gaztetxean  
eta kafetxo batekin.



## KONPOTA

DXUXTURI TEATROA

Azaroak 20, osteguna



### SINOPSISIA

“Jaun xarmant hura eskertu nuen. Eta ezin egin nion neure buruari, izena ahaztu dudan fruituak ez zuela adarrean eskegita askorik iraungo”.

“Baina koño, non jarri dut familia argazki hori?”

“Bere arbolari dudu maitea deitzen dion morroiak, psikoanalista bat behar du berehala, psikoanalista mutil tekniko bat. Inork ez dio bere arbolari dudu maitea deitzen, primerako papardoa ez bada behizat”.

Konpota, Philippe Gaulierren “La compote de...” bakarriketaren euskarazko bertsioa da. Antton Lukuren itzulpen honi esker, lehen aldiz, Gaulierren lanaz gozatzeko aukera izango dugu euskaraz.

### FITXA ARTISTIKOA

- **Idazlea:** Phillippe Gaulier
- **Itzulpena:** Antton Luku
- **Moldaketa:** Eneritz Artetxe
- **Zuzendaria:** Pablo Ibarluzea
- **Aktorea:** Eneritz Artetxe
- **Estetika eta jantziak:** Azegiñe Urigoitia
- **Eszenografia:** Iñaki Ziarrusta
- **Diseinu grafikoa:** Roberto Quintana
- **Argien diseinua:** Zigor Gorostiola
- **Ekoizpena:** Dxurturi Teatroa

# ZERTARAKO HEGOAK

METROKOADROKA KOLEKTIBOA

Azaroak 21, ostirala



### SINOPSISIA

Egoera absurdu batetik abiatzen da “Zertarako hegoak” antzezlan. Aurkikuntza harrigarri baten berri eman du egunkariak: pertsona normal orok ditu super botereak. Aurkikuntza honek arazo bakarra du: ezertarako balio ez duten super botereak dira topatu dituztenak.

Jende guztia hasi da bere super boterearen bila, haien artean Mirentxu: zer egin hegan egiteko balio ez duten hegoekin?

Pertsona bakoitzak bere inguruan eragiteko duen ‘boterea’z mintzo da Zertarako hegoak antzezlan. Ezertarako balio ez duten gauzen garrantziaz. Batzuetan ‘ni’ izan arren, beste batzuetan ‘gu’ itzateko dugun beharraz.

### FITXA ARTISTIKOA

- **Proiektuaren bultzatzailea:** BERRIA egunkaria.
- **Taldea:** Metrokoadroka kolektiboa
- **Antzezleak:** Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Iraia Elias, Iñigo Ortega, Joseba Roldan.
- **Testua:** Oier Guillan eta aktore taldea
- **Zuzendaritza artistikoa:** Dejabu panpin laborategia, Jabi Barandiaran
- **Argiztapena:** Ander Fernandez, Jabi Barandiaran
- **Estetika eta jantziak:** Marodi sorkuntzak (Idoia Beratarbide eta Maria de Bernardo)
- **Kartela:** Idoia Beratarbide
- **Bideoa eta trailerra:** Zazpi t’erdi
- **Argazkiak:** Peru Iparragirre
- **Laguntzailea:** Errenteriako Udala

## ESPASIO HUTSAK

HIGA ANTZERKIA

Azaroak 22, larunbata



### SINOPSISIA

Antzezlan honek, Amaia Lasa idazlearen “Geroaren Aurpegia” liburua du iturburu. Testu petikoa da ardatza. Ahotsa, gorputz mugimendua eta musika dira osagaiak.

Sentimendu nahasien indarpean atsedena aurkitu nahi ezin ezinik infinitoari so galdera gainezka.

Amaia Lasa

### FITXA ARTISTIKOA

- **Idea:** Arantxa Muñoz
- **Zuzendaritza:** Mercedes Castaño, HIGA Antzerkia
- **Antzezleak:** Arantxa Muñoz, Kristina Roperó, Maria Alonso
- **Musika:** Iñaki Santos
- **Hitzak:** Amaia Lasa
- **Esker onak:** Inma Irazustabarrena, Txitxi Orbeagoza eta Esti Urresola



# ESKOLA EDO GAZTETXOEI ZUZENDURIKO ANTZERKIA

AZAROAK 10, 11 eta 12

## AZAROAK 10, astelehena

- Antzezlanak: GORA ETA BEHERA (Dantzak eta Antzerkia)
- Ordua: 11:00etan
- Taldea: LANDABERRI IKASTOLA KUKUKA ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLA
- Antzezleen maila: DBH 3
- Ikusleak: LH 6, DBH 1 eta DBH 2
- Iraupena: 60 minutu inguru
- Antzezlanak: GRABATZEN?
- Ordua: 15:30ean
- Ikastetxea: IKASBERRI AZPEITIKO IKASTOLA
- Antzezleen maila: LH6
- Ikusleak: LH5 eta LH 6
- Iraupena: 60 minutu inguru
- Antzezlanak: EZUSTEKOA
- Ordua: 15:30ean
- Ikastetxea: ORIOKO IKASTOLA
- Antzezleen maila: DBH 1
- Ikusleak: LH5 eta LH 6
- Iraupena: 60 minutu inguru

## AZAROAK 11, asteartea

- Antzezlanak: HELDU GARA
- Ordua: 11:00etan
- Ikastetxea: BERMEO SAGRADO CORAZON IKASTETXEA
- Antzezleen maila: LH 6
- Ikusleak: LH 3 eta LH 4
- Iraupena: 60 minutu inguru
- Antzezlanak: IKASLE BARRIA
- Ordua: 11:00etan
- Ikastetxea: BERMEO SAGRADO CORAZON IKASTETXEA
- Antzezleen maila: LH 6
- Ikusleak: LH 5 eta LH 6
- Iraupena: 60 minutu inguru
- Antzezlanak: ANTZOKIKO ISTORIOAK: HAU DA HAU ESTREINUA!
- Ordua: 15:30ean
- Taldea: JAKIN ETA JOLAS ANTZERKI TALDEA
- Antzezleen maila: Profesionala
- Ikusleak: LH 1, LH 2 eta LH 3

## AZAROAK 12, asteazkena

- Antzezlanak:
  - HOLLYWOOD-EKO IZARRA EGOKITUA (I.ALDAI)
  - MORROI ALFERRA
  - BI ASTO (BERTSO ANTZERKIA P. AMEZKETARRA.)
- Ordua: 11:00etan
- Ikastetxea: BEASAINGO ANDRAMENDI IKASTOLA
- Antzezleen maila: LH 5, LH 4 eta LH 6
- Ikusleak: LH 4 eta LH 5
- Iraupena: 60 minutu inguru
- Antzezlanak: HABEMUS ZIRKUS II
- Ordua: 11:00etan
- AZPEITIKO GAZTERIA SAILA
- Antzezleen maila: DBH 1 etik BATX.2 arte
- Ikusleak: LH 6, DBH eta BATX.
- Iraupena: 60 minutu inguru





# AZPEITIA

## XXXII EUSKAL ANTZERKITOPAKETAK 2014<sup>ko</sup> UDAZKENA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

